



## NARRAZIO LABURREN XXXVIII LAPURBIDE LEHIAKETA

### 2026. URTEA. OINARRIAK

1. Lehiaketa honetan, interesa duten guztiek parte har dezakete, euskarazko nahiz gaztelaniako sailetan, baldin eta lehiaketaren aurreko edizioetan sarituak izan ez badira.
2. Parte-hartzaile bakoitzak ezin izango du lan bat baino gehiago aurkeztu modalitate bakoitzean (euskaraz edo gaztelaniaz); gehiago bidaliz gero, guztiak baztertuko dira.
3. Lanak gai librekoak izango dira, argitaratugabeak inolako formatutan, ez osorik ez zati batean (Internet barne), eta ezingo dira aurretik beste lehiaketa batean sarituak izan.
4. Luzera gutxienez hiru orrialdekoa eta gehienez hamabikoa izango da. A-4 formatuan, lerro arteko tarte bikoitzean, alde bakarretik, Arial 12 letrarekin, behar bezala azaleztatuta edo grapatuta.
5. Lanak eskura eman edo posta arruntaz bidali ahal izango dira Antsoaingo Udalaren bulegoetara **2026eko ekainaren 24ra arte, 14:00ak arte**. Beste bideetatik bidalitako lanak ez dira onartuko.

Bidalketaren helbidea honako hau da:

**Antsoaingo Udala**  
**Udaletxe plaza, 1**  
**31013 ANTSOAIN.**

Gutun-azal itxian sartuko dira, datu pertsonalik gabe, eta "Narrazio laburren Lapurbide hehiaketa" bakarrik adieraziko da, bai eta zein modalitatetara aurkezten den ere (euskaraz edo gaztelaniaz), bai eta bidalketa-helbidea ere. Lanaren izenburua eta izengoiti bat bakarrik agertuko dira. Gutun-azal horren barruan, beste gutun-azal txikiago bat sartuko da, era berean itxia, kanpoaldean izenburu eta izengoiti bera duena. Gutun-azal txiki horren barruan, egilearen izen-abizenak, NANA, helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa agertuko dira.

6. Epaimahaia kulturaren munduarekin zerikusia duten kideek osatuko dute. Sariak eman gabe utz daitezke, eta berdinketa gertatuko balitz, saria zati berdinetan banatuta emanen litzateke. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.
7. Saritutako lehiakideek konpromisoa hartzen dute saria pertsonalki jasotzeko Udalak horretarako antolatzen duen ekitaldian. Hala ere, saria esandako ekitaldian jaso daiteke behar adinako aurrerapenarekin izendatzen den beste pertsona baten bidez. Izendapena Udaleko Idazkaritzari jakinaraziko zaio. Ez da saririk ordainduko egingen den ekitalditik kanpo.

Udaletxeko Plaza, 1  
Plaza Consistorial, 1  
31013 Nafarroa - Navarra

948 13 22 22  
948 01 20 12  
012

ansoain@ansoain.es  
www.ansoain.es

**ANTSOAIN**  
**ANSOAIN**  
UDALA · AYUNTAMIENTO



8. Diru-sariak banku-transferentzia bidez ordainduko dira. Deskribatutako sarien zenbatekoei dagozkion atxikipen eta zergak ezarriko zaie, Zergei eta Zerga Neurriei buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera.
9. Aurkeztutako kontakizunak ez dira itzuliko. Saritutako lanak Antolakuntza Batzordearen esku geratuko dira, eta hark izango du saritutako lanak argitaratzeko ahalmena. Egile-eskubideak emandako sariaren bidez ordainduzat ematen dira.
10. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar

#### **SARIAK:**

1. **Saria** 600,00 € (sail bakoitzeko)
2. **Akzesita:** 250,00 € (sail bakoitzeko)

**ANTOLATZAILEA:** Literatur Lehiaketarako Batzordea.

**LAGUNTZAILEA:** Antsoaingo Udala

**INFORMAZIOA:** [certamenes.literarios.ansoain@gmail.com](mailto:certamenes.literarios.ansoain@gmail.com)